


Fotciencia 2015

Sei urteko ume batek eskua Petri-plaka baten gainean jarri eta bi egunez 28 °C-an inkubatu ondoren, argazki hau atera ahal izan zuten Raúl Rivas Gonzalez eta Lorena Celador Lerak. Haien helburua zen adin horretako umeei erakustea eskuak garbitzea garrantzitsua dela batetik, baina, bestetik, azalean mikroorganismo ugari bizi direla.

Tamaina eta kolore desberdineko orban horien atzean hainbat bakterio- eta onddo-espezie daude.


CSIC eta FECYT erakundeek antolatzen duten Fotciencia lehiaketaren 13. edizioko irabazle nagusiak izan dira argazki honekin Rivas eta Celador.




Sari nagusia

Zer dago ume baten eskuan?
(¿Que esconde la mano de un niño?)

Egileak: Raúl Rivas González, Lorena Celador Lera





Kategoria orokorreko accesita


Lehen iribarrea
(La primera sonrisa)
Egilea: Victor Rivera Jove

Mukizko babesaren pean pilatuta daude igel-enbrioi irribarretsu hauek. Batzuetan bizkar-hezurra osatzen hasia dela ikus daiteke, beste batzuetan baita isatsaren hasikinak ere.

Mikro kategoriako lehen saria

Mundu jasangarria (Mundo sostenible)

Egileak: Ruth Sánchez Hernández,
Antonio Tomás López



Zeolitazko kristal bat da argazkian ikusten dena. Zeolitak hamaika aplikazio izan ditzaketen mineralak dira, eta errektibo kimikoetatik edo hondakinetatik abiatuta sintetiza daitezke. Hala, hondakin horiek ingurumenean izango luke-

ten eragin kaltegarria saihesten laguntzen dute. Kasu honetan, aluminio-hondakin arriskutsu batetik abiatuta laborategian sintetizatutako kristala da, eta ur poluituetatik metal astunak erauzteko erabiltzen da.